



U N I N C E N D I O F E L I Z E N A R A N Z A Z U

POR EL

P. ROMUALDO GALDOS

ZORIONEKO ETXERRETZEA ARANTZAZU'N

1553 G. URTEKO LOTATZ-ILLAREN OGEITASEIAN.

BERRI ONEK BILDU ETA EUSKERATU DITU JESUS'EN LAGUNDIKO
ROMUALDO GALDOS'EK.

ITZEN BATEK ZER ESAN NAI DUEN, ADITZEN EZ DEZUNEAN;
BEGIRATU ASKENEAN DATORREN IZTEGIARI

IDAZTIÑO GUZTIAREN ASMO ETA IZAKERA

Zorioneko etxerretzea Arantzazu'n. Lelengo Atala

Iñasio Deunari bialdutako eskutitzak

- I. ASIERAKOA. Kikeron'en gezur polit bat, Arantzazu'n egituta.— II. AGERKUNAK. Arantzazu'ko berrionak, *Monumenta historica* deritzaioten idaztiñotatik aterata.— III. LELENGO ESKUTITZA. Oñati-ko Erri-batzarrak Loiola'tar Iñasio Deunari.— IV. BIGARREN ESKUTITZA. Franzisko'tarren Kantauria'ko Erki-nagusiak, Loiola'tar Iñasio Deunari.— V. IRUGARREN ESKUTITZA. Jesus'en Lagundiko Gou'tar Antonio'k Loiola'tar Iñasio Deunari.— VI. LAUGARREN ESKUTITZA. Borja'tar Jon Jaunak Loiola'tar Iñasio Deunari.— VII. BOSTOARREN ESKUTITZA. Jesus'en Lagundiko Araoz'tar Antonio'k Loiola'tar Iñasio Deunari.

Bigarren Atala. Iñasio Deunak Erroma'tik erantzun zituen eskutitzak

- I. SEIGARREN ESKUTITZA. Loiola'tar Iñasio Deunak Borja'tar Franzisko Deunari.— II. ZAZPIGARREN ESKUTITZA. Loiola'tar Iñasio Deunak Borja'tar Jon Jaunari.— III. AZKENEKOA. Irakaspen bi. Agur ospetsu - maitetsuak Oñati'ri eta Arantzazu'ri.

ZORIONEKO ETXERRETZEA ARANTZAZUN

I. Asierakoa

n { Kikeronen gezur polit bat.
Arantzazun egitura.

1. Gezurrezko jainko Jupiter'ek Erroma'n zeukan txadona erre zan baten: Kikeron'ek (1) esan zuen, su-gar aiek Jaungoikuak berberak bialduta-koak zirala; ez antxiñako txadona ondatzeko, beste txadon berri, obe ta ederrago bat eskatzezo baño.

2. Alako gezur polita esanaz, izlari aundi arrek idatzi ziguna; egirik ederrera esanaz, guk idatzi genezake, Arantzazu dan-dana erre zan aldi bati begira. 1553 g. (2) urteko Lotatzillaren ogei-ta-seian «lekaidetxe dana erre zan»; baño eleiza ikutzeke utzi zuten garrak. Gar aiei begira, Kikeron'en esakera guretzat artu, eta guk ere esan genezake: su-gar aiek Jaungoikoak ber-berak irazekiak zirala, ez Arantzazu'ko lekaidetxea ondatzeko, beste lekaidetxe berri, obe ta ederrago bat eskatzeko baño. Eta ez orretarako bakarrrik; su-gar aiek Jaungoikoak ber-berak irazeki zituan Arantzazu'n; euskaldun guzti guztien biotzetan Arantzazu-zaletasuna sutu, gartu, bero-bero ipintzeko.

Erre zan zorigaitzezko gau batean Arantzazu'ko lekaidetxea; baño laster ezagutu zan, alde guztietako euskaldunak beren biotzetan, Arantzazu'ko Andra Maria'rentzat zorionezko su-garrak, maitetasunik andienak zeuzkatela.

3. Maitetasun oien agerkun argi-argiak dauzkagu, orduantxe bertantxe idatzitakoak.

Agerkun guzti oyek *batu*, *euskeratu* edo *adirazi* edo *argitu*; idaztiñotxo onetan egin nai nukean lana da.

II. Agerkunak

4. *Monumenta historica* izentzat ezarrita; Jesus'en Lagundiko jakintsu batzuek, gure gauzak ezagutu ta jakiteko, aukeraz eterrri litezken idazkai guzti-guztiak biltzen eta batutzen dabilta. Lan zalla ta gogorra jakintsu oiek darabilte berentzat; baño guretzat ez ain zalla ta gogorra, gozo-gozoa ta bigun-biguna baño. Berei eskemak, Jesus'en Lagundiak bere asieran egin zituan gauza izugarriak, errez baño errezago billatu giñitzake.

Gure Euskalerrian ere erabilli zituan gora-berak, emen euki zituen okerrak, bertan iritxi zituan ondoren zorionsuak; neke gutxiz idaztiño oye-tan billatu litezke.

(1) *In Verrem* 2 g. itzaldia; 4 g. idaztiñoa; 31 g. zenbakia LEMAIRE: *Bibliotheca classica latina*, t. 71 pág. 250. (Paris, 1827).

(2) 1552 g. urtean izan zala Arantzazuko etxerretze au, esan eta idatzi oi da; baño 1553 g. urtean izan bear zan; gure eskutitz guztiak beintzat urte orrerontz jeten dutela dirudite.

5. Orrela billatu ditut nik, Arantzazu'ko lekaidetxea lenbizi erre zaneko berri jakingarriak; alde batez, berri zorigaiztozkoak, berri txarrak; bestez, berri zorionezkoak, bene-benetako *berri-onak*.

Bost eskutizetan irakorri ziñitzake, lekaidetxea erre zaneko berri txarrak, berri illunak; baña bost eskutiz oyetan, eta beste bostetan, berri on, alai ta asko poztutzekoak ere agertuko zazkizu. Mintsua ta garratza da Arantzazu'n alako etxerretzea ikustea; ango su-gar ketsuak lañoetaraño igotzen iruditzea ere: lekaideak igesik, ormak jausita, zurezko gauza guztiak kiskailduta, arrizkoak beltzituta, dan-danak nastuta

Baña gauza gozo ta alaia da orduko euskaldunak Arantzazu'ko Andra Maria'rentzat zerabilten zaletasun berdingabea, beren eskutizetan (edo obeto esateko) beren biotzetan ikustea; beren biotzetan bai, eskutitzoek, biotz-biotzetik irtenak dirala agiri da-ta.

Jesus'en Lagundiarentzat, Oñati'ko erri andiarentzat, Asis'ko Franzisko Deunaren Seme zintso, Arantzazu'n zorionez bizi diranentzat, amar eskutitzoyek ospetsuak dirade.

6. Ara lenengo-lenengo, Oñati'ko Agintariak Loiola'ko Iñasio Deunari Erroma'ra bialdu zioten eskutitza.

III. Lenengo Eskutitza (I)

(Iñasio [Jesus'en] Lagundi dan-danaren Nagusi, Irakasle eta Jaun txit agurgarriari.

Erroma'ko Bakaldurian.

Jaun Agurgarriari: Bear izan degun aldietan, gure erri oni Berorrek eman dion laguntza, gure itzakin goratzen, ez genduke jakingo; batez ere Berorren Lagundiko etxe jainkotiar au gure artean eukitzeko, Berorren baimena eman zigulako; eta bertau alako egoera Franzisko Aitak (2) egin dulako; eta emengo erri guztiei, ta batez ere Oñati'ko erri oni, kristozaletasun eta onegin ain aundiak datozkietelako. Guk Berorri alako onegiñakatik zor dizkiogun eskerak, Jaunagan ipintzen ditugu: zor oiek ordaintzeko, gure indarrak naikua ez dira-ta.

7. Baña Berorren ontasunakin uste ona eman digulako, eta orain ere damagulako; ez dezakegu utzi biotz-biotzetik gauza bat Berorri eskatu gabe; eta auxe da: Berorrek ondo dakin bezela, España'ko eleiz-etxerik gurtuene-takoa, eta Jaungoikoaren oparirako onenetakoa, Arantzazu'ko Andre Maria'ren lekaidetxea da, gure Oñati'ko lur-barruan dagoena.

8. Gure obenakatik, an bizi ziran Aiton etxe dan-dana (eleiza bakarrik ez bada), gau batean erretzen utzi du Jaungoikoak. Erki onetako lekaidetxeetan naguzienetakoa zan; eta bera erreta, biotzeko gogo-nai onenakin ara juden ziran euskaldun guzti-guztiei, oker aundirik aundiena datorkiote.

(1) *Monumenta historica* Epistolae mixtae, ep. 751, t. 4, pág. 30-31.

(2) Borja'tar Franzisko Deuna esan nai dute.

Asko lagundu eta diru asko eman bearco da, erre dana berritu eta berriz egin al izateko; bere tokia ere latza ta txarra dalako.

9. Gure Erkiko gizon aundienekin eta argienekin, baita Franzisko'tarren Erkiko Nagusiarekin (1) ere itz eginda; beste egipide batzuen artean gauza egoki ta bear-beartzat erabagi degu, [Erroma'ko] Aita Deunagandik Berorren bitartez, nekazka aundia iritxitzea; nolakoa izan bear dan, nekazka ori Franzisko'tarren Erkiko-nagusiak bere eskutitzan diotsa Berorri.

10. Otoizka, ba, daskaiogu Berorri, bitartekotzat sartu dedilla gugatik Erroma'ko Aita Deunarekin; etxe jauskiñ oni, nai degun nekazka deun ori, bialdu dizayon. Lekaidetxe ura berritzen bada, esan ezindako oparia Jaungoikoarentzat, eta Erki onetako gizonentzat esan ezindako ongi-bide ta gaizkakundea izango da: nai degunerako beintzat, egizegiz naikoa ta geiegi izango da-ta; baña ori-gabe, gure okerra zuzentzea zalla [ta gaitza] izango litzake.

11. Eta Jaungoikoarentzat alako goratasuna, eta gure erri ta emengo beste errialde guztientzat ainbesteko on eta onura dakarzkiten gauzetan; guk eskatzen jakin genezakean baño obeto, adituko duala gure auzia Berorrek, egi-egitizat daukagulako; eskutitz au amaituko degu, baña ez otoitza.

[Otoizetan] Gure Jaunai eskatzen diogu, Berorren buru ospetsua zaindu, eta bere menpian Berorren gogo deunak egiten, irauntzeko laguntza eman dizayola.

Oñati'ko erri onetik 1554 g, urteko, Ilbeltzean 13 g. egunean.

12. Eskutitz au egititzat emateko, bere izenez indartu du gure erri-batzarreko idazkari zintsoak.

Oñati'ko erri onetako erri-batzarraren aginduz, eskuetan nik, Jaun guztiz agurgarriorri, mun egiten diot.

Albiz'tar Franzisko'k.

IV. Bigarren eskutiza (2)

Lekaidi jauskin [Jesus'en] Lagundiko Nagusi ta Irasle, Iñasio, Aita, guztiz Agurgarriari.

Erroma'n.

13. Aita guztiz agurgarri ori: Ainbesteko zoritzarrean Job [Deuna] gel-ditu zanean, esan ontzat eman zioten bere lagunak, Jaungoikoaren deun eta adizkideak billatzeko; beren bidez ta bitartez, zeuzkan estutasun eta nekietan, pozkidatxoren bat irizteko.

Nik orain dedan egokera, Job [Deunak] euki zuenarekin berdiña izan ez arren ere; arekin antza ba du: neure lagunak eta aberriak, danak dasadate Berorren errukitasunagana eskez etortzeko: Berorri Jaungoikoaren otseña, here Ordezkoaren adizkidea, gure Euskalerrriaren aita dala; eta itxaropen

(1) Franzisko'tarren Kantauria'n Erkiko-nagusi edo *Probinziala Fr. Francisco del Castillo* zan; Iñasio Deunari egin zión eskutiza, berialaxe ipiñiko degu.

(2) *Epistolae mixtae*. Ep. 752, t. 4, pág. 32-34.

guzti-guztiarekin Berorregana etortzeko, Berorren errukitasun eta eskubide indartsuak poztu ta ongituko nindutela-ta.

14. [Ori dasadate] riere lagunak eta gure Euskalerrriak, Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxean euki degun oker negargarriagatik, berak ere nere okerrakin garbaitu dira-ta. Ni berriz garbaiago eta estuago nabill; eta oker au zuzentzeko gogoak, larriago narabill: Erki onetako Franzisko'tarren Otsein Nagusia naizelako.

15. Ango lekaidetxe dan-dana, barruan zeuzkan gauza guztiekin, sutu ta erre da; eleiza bakarrik, erre gabe alatzez gelditu da; eta su-gar artetik lekai-deak aitz baten gañera iges egin bazuten, Andra Maria'k egindako onegin aunditzat danak daukate.

Sukaldea txarki eginda zegoalako (utsarte baten gañean zegoan-da), sua beko utsartean sartu zan; baña iñorkere ez zuan somatu, ezin itzaltzeko garrak agertu ziran arte; eta ango bakartasun eta basamortuan, gizonen laguntzarik ezin billatu izan zan.

16. Gauza guztiz negargarria da, alako lan eta ainbeste dirukin 60 urtean egindako etxea, iru ordutan ondatzea. Txit mintsua izan da, aberri onetan, etxe urari zioten zaletasunagatik; guztiz eginda eta bukatuta zegoanean, alan lurreratuta ikustea.

17. Berriz egiteko, goguak ondasunak baño ugariago dabilta; batez ere ainbeste urte onetan izan diran agortea katik; eta batez ere, Franzia'kin darabilgun gudak, dakarzkigun alako oker aundiakatik; gure Erki ta errialdeei ainbesteko kalteak guala oiek egiten dizkigute-ta.

[Au alde batez]; bestez, etxe urari Andra Maria'k goitiko gauza oargarriekin ta alatz izugarriekin lagundu, eta guk utzi nai izatea; gauza ikarakorra ta itun-ituna da: ez utzitzearren, orain datozen urtietan, neke aundiak gure lekai-deak igaro bearko; baña Jaungoikoak eta bere Ama garbiak bialdutako ongi-bidearen itxaropenakin biziko dira, ta baita ere gizonei Jaunak eta bere Amak biotzetan, gure lekaideei on-egiteko, ipiñiko diezten gogoen itxaropenakin.

18. Orainguan, guzti-guztiak, erri-gizonak eta gure lekaideak buru batez eta iritzi berdinez dasadatena da, aletin egiteko Erroma'ko Aita Deunak nekazka aundiren bat bialdu dizagun; Iruña'ko eta Kalaorra'ko Goterki bientzat gutxienez, bost edo sei urterako egun bat ipiñita, jaiaren zortziurren guztirako nekazka iritxi ezin balitz.

Egun ori uste degu, Goteunaren Etorrera egokia izango litzakeala, berak dakarzkian iru jai-egunekin, ain bakar eta ain txarra [Arantzazu'ko] tokia dalako; eta egun baten bakarrik ozte asko jungo balitza; ez jatekorik, ezta egoteko tokirik ere ez lukete eukiko.

19. Esker ori eskuratzea irizteko, nere Lekaidiaren eta erri guztioen ize-nean, eta batez ere Berorren aberri Guipuzkoa'ko Erkiaren izenean, Berorren aurrean auzpez jarteko [guztiok dasadate]; eta otoizka eskatzeko, Jaungoikoaren goratasuna eta oparirako diran gauzetan, Berorrek beti darabilen gogo su-gartsua, artu dezala Berorren ardurapean, gure egikizun au; Jaungoikoaren eta bere Ama Deunaren goratasunerako dan ezker; Berorri ere, beren otsein zintsoa da-ta. Eta beren otsein zintsoa dalako; artez ta egiz, Doipuruarekin,

eta bere Jantzakordun eta laguntzaleekin, daukan eskubidea dauka; Berorren eskarietan eskatzen duana, Berorren buru jauskiñari datorkion beakurragatik, entzun eta eman dizayen [Eleiz guztiko Doipuruak].

20. Emen guztiak uste dute Andra Maria'k berak danoi buruan sartu digula, alako oker aundia zuzentzeko, Berorren eskutarte eta bitartekotasuna eskatzea.

[Eta eskatzen degun] nekazka ori, Berorren bitartez irabastera eldu gerala jakiten bada; bakoitzak beretzat irabasteko, guztiak gertukho dira, eta uste aundiagoakin artu ta begi obeekin begiratuko diote.

21. Irabaskin aundiak egiteko, aldi ederrak datozkia Berorri [gure] zeregin onetan, eta [irabaskin andiak egiteko], ez Berorreutzat bakarrik, baita Berorren erri ta abenderriko guztientzat ere: lurrezko ta zeruzko zaletasunarekin ain biotz-biotzetik Berorrek maite dituen aberkidei, barruko onegin aundi-aundiak datozkiete, [Arantzazu'ko] lekaidetxea berriz jasota-ta.

22. Alako zeregin astun da ardurazkorako, bear izango du Berorrek norbait, eskarietan Berorri otseindu ta lagundu dizayon: eta iritxi ta gero; egin bear diranak egiteko; bear izango du gailera dirua; diruz bailo zeruko aberaztasunez ugariago dabillega Berori, ustez nagota.

Orrela beste lanak kenduta, lagun arduratsuren bat artzen badu Berorri laguntzeko; geu ere arduraz egongo gera, [lagun ori] ondo zaritzeko; eta emen batuko gendukeanetik, bere eginbearretarako bialduko giñioke gendukio [bear dana].

23. Eginbear onetan zer itxaron genezaken, Berorrek esan dizagula eskatzen diot. Itxaropen eta pozgarri aundiak ekarriko dizkigula uste det Berorren erantzupenak, Berorren otsein oni eta Berorren aberriari; uste oiek Berorren ontasun eta gogo deunak damazkidate-ta.

Onela, oraingo okerra, irabaskin bikoitzakin zuzenduta geldituko da; Job deunaren okerra zuzendu zan bezela: alaxe Jaungoikoaren Amaren zeregin jauntzale onegatik, sari berdingabea eukiko du Berorrek zeruan; eta lurrean etxe onen berritularizat eta berritzaletzat beti-beti gogoratuko dute.

24. Gure egipen au, ta Berorren zorionezko gogoak egiteko, esker berdingeakin Berorren burua Gure Jaunak zaindu ta lagundu dezala.

Oñati'tik. 1554 g. urteko, Ilbeltzaren 14 g. egunean.

Berori eskuetan mun egiten dio Berorren eskatzalle.

Kantauria'ko [Franziskotarren] Erki ekaidaba
Gaztelu'tar Franzisko Anaiak

V. Irugarren eskutitza (I)

JESUS'EN LAGUNDICO ANTONIO GOU AITAK, BALLADOLID TIK ERROMA'RA
LOYOLA'KO IÑASIO DEUNARI BIALDUA

25. Kristo'gan Aita maite-maite ospetsuari:

Ez det esan gabe utziko, Oñati'tik bialdutako eskutitz baten bidez jakin

(1) Satitxo bat bakarrik ipiñiko degu, guri auzi onetan ardura ez diguten gauzak utzita.
Monumenta historica Epistolae mixtae t. 4, op. 757, pág. 47.

degula Jon Goizpargillaren eguneko gabean, Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxea erre zala.

Oñati'ko lurbarrian zegoan, bakartasun aundiko toki batean. Bertan zegoan Franzisko'tar lekaideen etxe bat; eta lekaide on-onak ziran. Eleiza ta ostatu-etxea bakarrik gelditu dira osorik; ezta arri bat ere bere tokian golditu; sua ain aundia izan zan. Erriak zaletasun aundiz begiratzen dioten etxea da: eta ango inguruetakoak ara juten dira, beste erri-alde batsuetakoak Monse-rrat'era edo Guadalupe'ra juten diran bezela; alako berri entzungarria dalako, diotsat Berorri.

Balladolid'tik.

1553 (1) g. urteko Ilbeltzaren 25 g. egunean.

Berorren semerik txikiena ta otseiñik gutxienetarakoa.

Antonio Gou

VI. Laugarren eskutitza (2)

Nere Jaun da Aita guztiz ospetsu, Jesus'en Lagundiko Lekaidaba Nagusi, Loiola'ko Iñasio Irakasleari.

Erroma'n.

26. Nere Aita eta Jaun guztiz ospetsuori: Gure aitaren (3) eta Erki-nagu-siaren (4) eskutitzekin Berorrek jakingo duen bezela; emengo erri dan-danak alako zaletasunakin maite duten, Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxea, erre da; bera erretzen utzitea, Gure Jaunaren naia izan da-ta.

Suak egin duan okerra zuzentzeko, eta etxea berriz eginda, len bezelako oparia Gure Jaunari datorkion; Aita oiek (5) nai dute, egipen onetarako Aita Deunari nekazka bat eskatzea; eta orretarako Berorren laguntza, nekaska ori irizteko emanaz, izan dedilla Berori beren bitartekoa, daskate.

27. Nik nerez, zeregiñ oni gogoz lagundu dezaiola Berorrek, otoi dagiot: Gure Jaunarentzat ain goratasun aundirako dalako.

Eta Berorrek ere, [guk nai degun ori], ainbeste nai duan ezkeru; ez det nik geiago erabilli bearrik: Berorrek ez gaituela utziko, al duan on guztia egin gabe, itxaroten degu-ta.

Nik nai dedan bezela, Berorren buru txit ospetsua Gure Jaunak zaindu dizagula.

Loyola'tik. 1552 g urteko Ilbeltzaren g. egunean.

Berorren seme eta otsein.

Borja'tar Jon Jauna (6).

(1) Argi-argi dago idatzita 1553); baña eskutitzeko berri guzti-guztiak diote 1554 irakorri bear dala.

(2) *Monumenta historica* S. Franciscas Borgia, t. 1., pág. 635.

(3) Borja'tar Franzisko Deuna.

(4) Aita Araoz dala dirudí; baña eskutitza ez zuen Erroma'ra bialdu Garagarrilla eldu baño lenago.

(5) Arantzazun bizi ziran lekaide Franzisko tarrak.

(6) Borja'tar Franzisko Deunaren irugarren semea zan, eskutitz onen egillea. Eskutitz au idatzí zuaneko, eskonduta zegoan Loyola'n, Oñaz da Loyola'tar Lorenza'kin.

VII. Bostgarren eskutitza (I)

Kristo'gan nere Aita txit agurgarri, Loiola'tar Iñasio, Irakasle, Jesus'en Lagundiko Lekaidaba Nagusi-ari.

28. Nere aita guztiz agurgarri ori: Jesucristo gure Jaunaren eskerrik aundiena eta bere betiko maitetasuna beti guri laguntzen eta on-egiten izan dedilla.

Beste batzuek, eta Franzisko Aitak bialdu dizkioten eskutitzen bidez, oraingo ba-daki Berorrek Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxea nola dagon.

29. Ango etxeko zerutasuna, eta aitorkundeak entzuten an egiten dan ona; esagutzen du Berorrek.

Beartasuna ain aundia ta egipena ain ona dalako; eta ango lekaidiei asko bailo ge'fago zor diegulako; ezin gelditu izan gera, Berorri idatzi gabe.

Erdi esatea ere naikoa dalako, eta nolako eginbearra dan Berorrek dakus-lako; Jesukristo gure Jaunak bere laguntza eman dizagula, bere gogo deun-deuna ezagutzeko ta egiteko. Arren bai.

Balladolid'tik 1554 g. urteko Garagarrillaren 25 g. egunean,
Kristo'gan Berorren semerik txikiena.

Araoz.

BIGARREN ATALA

IÑASIO DEUNAK ERROMA'TIK ERANTZUN ZITUEN ESKUTITZAK

30. Bost eskutitz ipiñi ditugu emendik Erroma'ra bialdutakoak; baña gutxienez zazpi ere bialdu zituzten, guk bi billatu ezin izan arren.

Iñasio Deun ber-berak dio (2), auzi onetzaz berari idatzi ziotela Borja'tar Franzisko deunak eta Azpeiti'ko erri-batzarrak; baña bi eskutitz oiek, guk beintzat ezin billaturik orain-arte ibilli gera. Gure eskuetara bein-edo-bein eltzen badira, euskelzaleoi pozarren emango dizkitzutegu.

Ona emen orain, Erroma'tik onuntz Iñasio deunak, edo bere menpekoak, biurtu zituztenak.

i. Seigarren eskutitza (3)

Jesus'en Lagundiko Borja'tar Franzisko Aita, eta, gure Jaunagan, nire anai maite-maiteari.

Plazenzia'n edo Sebilla'n.

Kristo gure Jaunaren eskerrik aundiena eta bere maitasun betikorra gure on da laguntzarako beti-beti izan dedilla.

(1) *Monumenta Ignatiana* Epistolae mixtae, t. 4: Ep. 830; pág. 239.

(2) *Monumenta histórica*: Monumenta Ignatiana. Ep. 4721, t. 7, pág. 422.

(3) *Monumenta histórica*: Monumenta Ignatiana. Ep. 4721, t. 7, pág. 422.

31. Garagarrillaren 25 g. egunean zuk egindako eskutitz bat artu nuen; eta berakin batera [Franzisko'tarren] Kantauria'ko Lekaidabak, eta Oñatiko (1) ta Azpeiti'ko erribatzarrak bialdu zituztenak; eta baita zure seme Jon Jaunak ere, eta gure anai Araoz Irakasleak ere idatzi ziguten. Eta eskutitz dan-danak ziotena zan, nik alegiñak egin bear nituela, nekazka bat [Aita Deuna gandik] urte batzuetarako ateratzeko Iruña ta Kalaorrako Goterkietarako; bide orrez Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxea egiten laguntzeko.

32. Egia da, etxerretze ura guztiz negargarria izan zala; batez ere toki artako jauskintasuna ta an gure Jaun da Jaungoikoari egiten zaion oparia esagutzen dituguentzat; eta orrexegati, Lekaidetxea berriz au jasotzeko egin litezken alegiña gogorik aundienakin egin bear dirala deritzat. Eta esan dizazuket, nik beintzat gogo ori eukitzeko, ba-daukatala neronek bakarrik euki nezaken zergatik bat: bada nere biziera oberontz zerbait-txo Aldantutzeko eskerra, gure Jaun eta Jaungoikoak eman zidanean; oraindik gogoratzen deti ango Eleizan igaro nuen gau logabea, nere barruan [Jaunak egindako] onui raren bat artu nuela

33. Baña ekizu, anai maite-maite orrek, illa bitik onera, ogeitalau ordu egunak eukila, nere gaisotasunakatik lau ere ez nagola oetik irtenda; goretsia izan dedilla Jaungoikoa.

Gañera nekazka gauza abek, oraingo Aita Deunak nekez-nekez eman oi ditu. Nokazka ori irizteko, egokia deritzat, Aita Deunari ta Karpi'ko Jantzkordun Franzisko Deunaren Lekaidiko Laguntzaleari eta (ondo baderitzazu) niri ere Bakaldunaren alabak (2) idatzi dizagula.

Eta orduan, bizkor samar ba-nabill; gauza oiek ondorengo ona euki dezan, Aita Deunagan edo [Franzisko'tarren Lekaidiko] Zaindariagan lagundu nezake.

Nere iritzia da, onela erabiltzea gauza au; zure edo Araoz'tar Irakaslearen edo besteren baten bitartez, orko [Bakaldungaiari] (3) eskutitz oiek ateratzea erreza dirudi-ta; ganera luzapen eramankorra izango litzake, orretarako aldi laburra bear izango litzatekelako.

34. Eskutitz au (edo bestela baderitzazu) bere esan-naia erakutsi ziñizagoteke, zeregin onetaz idatzi didatenei; nik berai izkiz bailo egipenez erantzun naiago banieke ere.

Beste gauzatarako eskutitz au ez dalako, amaituko det; zure otoitzetan gogoratu nazazula eskatuta. Baita gure Jaun eta Jaungoikoari ere otoi dagiot bere nai deun-deuna beti ezagutu ta osoro egiteko, laguntza oso-oso guztioi eman nai dizagula.

Erroma'tik 1554 g. urteko Dagonillaren 20 g. egunean.

Gure Jaunagan, dana zurea.

Inasio

(1) Iñasio deunaren eskutitzak 1887 g. urtean, Madrid'en argitaldu zituenak, eskutitz onetan Oñati'ko izena utzi zuen: baña irarkaldi berrian ondo dio «de Azpeitia y de Oñate» Oñatiko ta Azpeiti'ko. *Monumenta historica. Monumenta Ignatiana. Epistolae mixtae*, t. 4, Ep. 830.

(2) Karlos V'garrenaren alaba, Austria'tar Jona; eskutitz au idatzi zanean, España'ko Agintari-naguzia bera zan.

(3) Len esan degun Karlos V'garrenaren alaba.

II. Zazpigarren eskutitza (1)

Borja'tar Jon Jaunari.

Kristo gure Jaunaren eskarrik aundiena gure on da laguntzarako beti izan dedilla.

35. Jun zan Ilbeltzan Zuk egindako eskutitz bat, guztiz berandu artu nuen, eta beste [eskutitza] batzuk ere alaxen.

Danak zirala uste nuen, izkiz baño egipenez obeto erantzutekoak; eskatzen ziestena, gure Jaun da Jaungoikoaren opari aundikoa zalako; eta eskatzen zidatena, Jaungoikoaren Bakaltasunarren, opari guztia egitea nai nuelako.

Baña Franzisko Aitari (2) erantzun nionez; zeregin orrek ondorengo ohea eukiko du, nik iragarri nion bidez.

36. Ikusiko zenduen zuk nire eskutitza; danak bakoitzak beretzat, nere gaixotasunagatik, erantzundakotzat euki zezatela nai nuen-da. [Baña] osasun geitxoago euki, eta eskatzen zidaten zeregiñean, zerbait egindakuan; bakoitzari bere eskutitza erantzuteko asmoz nengoen.

Eskutitz ura Zuk ikusi ez ba-dezu; berak ziona, Obiedo'tar Andres Irakasleak aoz esango dizu. Beste lau jauparikin, [Erroma'ko] Aita Deunari otseindutzearren; Etiopiara, *Preste Juan* deritzanaren bakalderrietara bialduta dijuaz. Zuri ta zure etxekoei agertu bat egingo dizute, eta berak izango dira gurez, eskutitz biziak; Zuk jakin nai dezun guztia esateko.

37. Orregatik berai, nere orde zitezgitea emanda; gauza bat bakarrik egingo det: Gure Jaun eta Jaungoikoari otoizka eskatu, bere nai deun-deuna beti esagutu ta osoro egiteko, esker oso-osoa eman nai dizagula.

Erroma'tik 1554 g. urteko Iraillaren 19 g. egunean.

Iñasio.

III. Azkenekoa.

38. Baita beste iru (3) eskutitzetan ere, Arantzazu'ko etxerretze au aipatzen da; baño, gauza berririk ez diotelako, ta deus gutxikoak diralako, ez daukate onera ekarri bearrik.

Arantzazu'ko Lekaidetxe agurgarria gero nola berritu zan, eta gaur dagon bezelako eder eta ikusgarri egiñ-arte, nolako goraberak erabilli dituan, esatea; ez da idaztiño onetan egiteko lana. (4)

39. Nik neretzat artu detan egin-bearra, egin det: zaspí eskutitz oiek, euskal-lora-txorta bat egiñaz, batu ta bildu ditut-eta. Beren usai gozos euskaldun guztioi, eta batez ere Arantzazu zaleoi daskintzutet.

(1) *Monumenta historica: Monumenta Ignatiana*. Series prima t. 7 Ep. 4804. pág. 151-552.

(2) Borja'tar Franzisko Deuna.

(3) Arantzazu'ko berrion eder eta entzungarriak jakin nai dituztenak, irakurri bezate erderazko idaztiño *Historia de la Imagen y Santuario de Nuestra Señora de Aránzazu* por D. Julián Pastor y Rodríguez (Madrid, 1880).

(4) Beste iru eskutitz oiek dira: ¹⁾ Ep. 4737, ²⁾ Ep. 4937, ³⁾ Ep. 5048 *Monumenta histórica, Monumenta Ignatiana* Series prima t. 7-8.

Usai gozo orrequin burua argituta, eta biotza poztuta, errez atera ziñitza-kete zuek ere, eskutitz oietatib erdi-berez sortzen diran irakaspenak.

¿Bai al dakizute ba zeintzuek diran eskutitz oiek dakarzkiten irakaspenak?

LENENGO IRAKASPENA

ORAIN LAUREGUN URTE ARANTZAZUK ZEUKAN ANDITASUNA DA.

40. Zana zalako; Oñati ta Azpeiti'ko erri-batzarrak, Franzisko'tarrak eta Jesus'en Lagundikoak, dan-danak arduratu ziran, Arantzazu berrituzearren alegiñik aundienak egiteko.

Emen Araoz, Borja biak (aita ta semea), Franzisko'tarren Nagusia, baita emakumerik eskubide aundienekoa ere, Karlos audiaren alaba altsua, arduratuta ikusi ditugu.

Erroman Loiola-tar Iñasio, bere idazlari Polanko, Karpi-ko Jautz Rordun Franziskotarren Zaindaria, Eliz guztik. Doipurua, danak aitatuta entzun ditugu.

Gizon aundiak ez darabilte zeregin txikirik: gauza andia zan-ba Arantzazu berrituztea; orduan gauza aundia zan Arantzazu.

Bai, Arantzazu gauza aundia zan: ala ziotzaten Iñasio Deunari Oñati arrak: «Berorrek ondo dakin bezela, España'ko eleiz-etxerik gurtuenetako, Jaungoikoaren oparirako onenetakoa, Arantzazu'ko Andra Maria'ren Lekaidetxea da, gure Oñati'ko lur-barruan dagoena».

Ez zuten geiegi esaten oñati'arrak ori esanda orregatik gañera ipiñi zuten: «Erki onetako lekaidetxietan nagusienetakoa zan» Ori ere ezan geiegi esatea.

Urrutitik, Balladoli'tik zion geiago beste batek, gezurrik esan gabe: «Erri [guztiak] zaletasun aundiz begiratzen dioten etxea da; eta ango inguruetakoak bertara juten dira, beste errialde batsuetakoak Monserrat'era edo Guadalupe'ra juten diran bezela. Aunditasun onen jarrai dator.

BIGARREN IRAKASPENA

EUSKALDUNEN ARANTZAZU-ZALETASUNA

41. Sorkaldeko errientzat Monserrat; Sarkaldekoentzat Guadalupe; Euskalerrikoentzat..... Arantzazu.

Entzun dezute zer idatzi zuten Balladolis'tik: gogoratu itzazute beste esakera batzuek: «Emengo erri dan-danak alako zaletasunez maite duten, Arantzazu'ko Andra Maria-ren Lekaidetxea, erre da».

«Ango etxeko, [Arantzazu'ko] zerutasuna, eta aitorkundeak entzuten, an egiten dan ona; ezagutzen du Berorrek»: idatzi zion Iñasio Deunari Araoz'ek. (1)

Bai; ezagutzen zituan Iñasio deunak, iñork baño obeto, «ango zerutasun eta an egiten zitan onerazkoak»; eta iñork baño obeto ezagutzen zitualako, Borja'tar Franzisko Deunari (1): «Egia da etxerretze ura guztiz negargarria

(1) 32 g. zenbakian.

izan zala; batez ere toki artako jauskintasuna ta an gure Jaun da Jaungoikoari egiten zaion oparia ezagutzen degunentzat; eta orrexegatik, Lekaidetxea berriz an jasotzeko egin litezken alegiñak, gogorik aundienakin egin bear dirala deritzat. Eta esan dizazuket, nik bein beintzat gogo ori eukitzeko, ba-daukatala neronek bakarrik euki nezaken zergati bat: bada nere biziera onerontz zerbaitxo aldatutzeko eskerra gure Jaun eta Jaungoikoak eman zidanean, oraindik gogoratzen det, ango Eleizan igaro nuen gau logabea, nere barruan [Jaunak egindako] onuraren bat artu nuela».

42. Iñasio deunak letz, Aranzazu'ra igotzen ziran euskaldun dan-danak: beren barruetan onuraren bat artzen zuten; orregatik zeukaten alako Arantzazu-zaletasuna.

Zaletasun ori gure biotzetan ber-biztu, sutu, berotu, gartu; euskaldun danon eginbearrik aundienetakoa da.

Arantzazu'ko Andra Maria'k ber-berak eman dizayola gure idaztiñotxo oni indarra,ugar oiek irakurlien biotzetan irazekitzeko.

Ori izango da gure lan gozoen saririk gozoena.

43. Eta emen amaituko nuke, beste egin-bear aundi bat bete bear ez bannuke.

Eskutitz oiek irakarrita; nai-ta-nai ez, baila pozaren pozez, Arantzaxu'ra ta Oñati'ra begira, bi agur egin bear ditut.

OÑATI'RA BEGIRA, agur ospetsu bat ango agintariei ango Erri-batzarrari, gaur ere Jaunkoiko-zalea, gaur ere Arantzazu-zalea, Iñasio deunari Erroma'ra idatzi ziotenean bezela, dalako.

ARANTZAZU'RA BEGIRA, agur maitetsu bat ango bizilari zoriontsuei Asis'ko Franzisko deunaren seme deunei; gaur ere antxiñakoak bezelakoak diralako.

Oraiñ 364 urte idatzi zuen Jesus'en Lagundiko batek: (1) «Bertan [Aranzazu'n] zegoan Franzisko'tar lekaideen etxe bat; eta lekaide on-onak ziran».

Eta beste batek zion (2): «Ango [Aranzazu'ko] Lekaidiei asko baño geiago zor diegu».

Zor oiek guk bete ezin giñitzakelako, bete ditzala Arantzazu'ko Andra Mari guztiz aberatzak, bertan dauzkan semerik maiteenak, eta Euskalerrri guztiko semetxoak zekuko ta lurreko ondasun ugariz bete-beteta.

Deuston (Bilbao'n) Traillaren 2 g. egunean.

(1) g. zenbakian.

(2) g. zenbakian.

CARTA PRIMERA

EL AYUNTAMIENTO DE OÑATE A SAN IGNACIO DE LOYOLA.

6. Rmo. Señor. No sabríamos con qué palabras encarescer la merced grande que V. P. ha echo a esta villa las vezes que se ha ofrescido en qué en especial en aver permitido a que en ella oviese esta debota cassa de la horden, y la estançia quel P. Francisco ha echo en ella, de donde tanta xpian-
dad, cristiandad y beneficio ha resultado a todas estas tierras, en especial a esta; cuyas graçias remitimos a nuestro Señor, pues nuestras fuerças no vastan para corresponder a ellas.

7. Y pues V. P. con ellas nos ha dado y da atrevimiento, no podemos dexar de suplicarle afetosamente lo que en esta se dirá, y es, que, como V. P. terná entendido, vna de las más debotas cassas que ay en España, y donde Dios es muy seruido, es el monesterio de Nuestra Señora de Arançaçu, ayto en la jurisdicción desta villa.

8. Ha permitido Dios por pecados nuestros, que la casa de los Padres que allí residían, que hera de los señalados conventos desta prouincia, una noche se aya quemado toda ella, çepto [excepto] el cuerpo de la yglesia, de que se ha resultado vn daño eçesibo [excesivos] y grande para todo el bascuenge, que allí acudía con mucha deboçión. Y según la aspereza del lugar donde esta syto, ay nesçesidad de gran fabor y limosna para su restavración y poderlo rehe-
dificar.

9. Y entre otras vías, sobre aver conferido con el Provincial y discretos desta prouincia, se ha hordenado çer cosa nesçesaria e muy ynportante en que obtuiese, mediante la ynterçesión de V. P., de su santidad vn jubileo po la horden quel dicho Padre provincial a V. P. synifica en la suya.

10. Suplicamos a V. P., pues de tornar a restavrar la dicha cassa y con-
bento será Dios tanto seruido y será tanto remedio, quanto sabríamos dezir para salbaçión de la ánimas destas prouincias ynterceda con su santidad para queste santo jubileo que se pretiende se coneda a esta casa tan devota; porque es çierto que será vn remedio muy vastante para lo que se pretiende, y a menos dello sería dificultoso su remedio.

11. Y porque somos çiertos que en cosa de tanto seruicio de Dios, y bien y provecho desta villa y prouincias comarcanas lo entenderá mejor de lo que acá a V. P. sabríamos suplicar, y obtendrá, çesamos, y no de rogar a nuestro Señor la Rma. persona de V. P. guarde, le de gracia, de perseberar en su santo seruicio con el conplimiento de sus santos desseos. Desta villa de Oñatte y de Henero a los treze de 1554.

12. En creuençia de lo qual va firmada del scribano [?] fiel de nuestro ayuntamiento. Por mandado del ayuntamiento desta villa de Oñatte, Rmo. Señor, las manos de V. P. vesa,

Francisco de Albiz.

Inscriptio: † Al Rmo. Señor. el Mtro. Ynaçio, prepósito general de la Compañía de (Jesús), en la corte romana, etc.

CARTA SEGUNDA

FR. FRANCISCO DEL CASTILLO, MINISTRO PROVINCIAL DE LA PROVINCIA
FRANCISCANA DE CANTABRIA A SAN IGNACIO DE LOYOLA

13. Rmo. Padre: Aconsejado fué el atribulado Job por sus amigos, tuuiese recurso a alguno de los sanctos priuados de Dios, por cuja intercesión y medio tuuiese alguna consolación para en remedio de su tribulación y fatiga en que se veyá.

14. Avnque el caso mio no sea el de Job por ygualdad, eslo por alguna similitud: he sido aconsejado de la mesma manera por mis amigos y patria, doliéndose de mi aflição en cierto caso lastimoso que ha acahecido en el convento de nuestra Señora de Arançaçu, siendo yo siervo y ministro desta prouincia, para que más lo sintiese y el remedio en más cuidado me pusiese, a la clemencia de V. P. Rma., como a sieruo de Dios y privado de su teniente y vicario general y padre de la patria, tubiese recurso con çierta confianza de ser consolado y remediado por industria de su piedad y mano valerosa.

15. Y es que todo aquel convento con todo lo que abía dentro se ha abrasado y quemado, exçpto la yglesia que miraculosamente quedo reseruada, y los religiosos aberse podido escapar, sin ser abrasados, sobre vna peña, se tiene por particular fauor de nuestra Señora. Subcedió por falta de edifiçio de la cozina que, como estaua sobre hueco, caló el fuego abaxo sin poderse sentir hasta que no lleuó ningún remedio, ni se pudo aber fauor de gente en aquella tan gran soledad o yermo.

16. Caso es muy lastimoso que lo que en sesenta años con tanta costa y trabajo se hedificó, se consumiese en tres oras. Hase sentido muy mucho en esta patria por la deuoción que a esta casa todos tenian, en verla así asolada, estando del todo ya acauada.

17. Para la tornar a rehedificar ay más voluntad que facultad, espeçialmente por causa de la esterilidad tan acosada de tantos años, y sobre todo esto los daños tan creçidos de la continua guerra con Françia, de que subçede tanto daño a la prouinçia y su comarca. Por otra parte pareçe cosa horrenda y tristíssima querer desamparar aquella casa tan favorecida de nuestra Señora en cosas notables de deuoción y milagros, aunque los religiosos padezcan grandes fatigas por estos años venideros por no la desamparar, esperando el remedio de Dios y su Madre gloriosa, por algunos medios buenos que a las gentes inspirare.

18. Lo que al presente con concorde pareçer y común consejo de todos, así seglares de la prouincia como religiosos de la orden, me aconsejan, es, se procure de su sanctidad algun solepne jubileo, a lo menos para dos obispados, que es el de Pamplona y Calahorra, para en espaçio de çinco o seys años para vn día señalado, si no se pudiera aver por toda la octaua de la festividad, la cual nos pareçe que sería bien la pascua del Spiritu sancto con sus tres días de fiesta, o la visitaçión de nuestra Señora con su octaua, o tres días della, por

ser tan despoblado y aspérrimo lugar, que en un solo día, si la gente acudiese no abría mantenimiento ni dónde se reparar.

19. Y para aver de alcançar esta graçia, que yo me eche a [los] pies de V. P. Rma. en nombre de la orden y de toda esta tierra, especialmente de la prouincia de Guipúzcoa y patria suya, suplicándole tome la mano en caso tan en seruicio de Dios y de su Madre sagrada, con aquella voluntad tan inflamada que la ha mostrado siempre en casos donde interuieue la honrra y seruicio de Dios, como su sieruo fiel; pues como tal, justamente tiene tanto crédito con el summo pontifice y los cardenales y ministros de la silla apostólica, por reverençia de su religiosíssima persona, para ser oydo y prebeydo en su suplicación.

20. Acá se tiene por inspiración de nuestra Señora que con parecer concorde todos hayan concurrido en este voto, sin discrepación, para el remedio de tan gran daño, la intercesión y fauor de V. P. Rma., sea interpelada; y en saber que es ganado y avido por mano de V. P. Rma., con doblada afegión y deuoción se dispornán todos a ganarlo, y será en mayor veneración y estima tenido.

21. Grandes ocasiones de mérito se le ofrecen a V. P. Rma. en este negocio, no solamente para sí, pero avn para todos los de su patria y naçión, allende del remedio para el rehedifiçio, por el bien tan soberano que desto proçede en lo spiritual a aquellos que V. P. Rma. tan cordialmente ama con natural y virtuosa imaginación de dar fauor a los de la patria.

22. Para este negoçio tan graue y cuydadoso, será necesario aver allá quien le sirua y ayude de solliçitador, después de abida la gracia, para la expedición de negocios, y tambien socorro de dineros; tomando allá para este seruicio alguna persona solliçita de quien V. P. Rma. se sirua y le desonere de algún trabajo: tenérsele ha respeto para que sea bien gratificado y para las expensas sea probeydo y se reparta de lo que acá se oviere.

23 Suplico ser avisado de V. P. Rma. de lo que en este negoçio se debe esperar; y confío en su bondad y sanctos deseos será la respuesta de gran esperançia y consuelo para este su sieruo y patria, y el daño presente será restaurado con doblada ganancia, como la pérdida del bienabenturado Job, para que en el çielo V. P. Rma. por este negoçio piadoso de la Madre de Dios tenga singular premio, y en la tierra perpetua memoria de rehedificador y reparador de su casa.

24. Cuya Rma. persona nuestro Señor conserue y fauorezca con graçia particular para esto y para execuçión de sus bienabenturados deseos. De Oñate a 14 de Henero de 1554.

*Fray Francisco de Castillo,
ministro provincial de Cantabria*

Inscriptio: † Al Rmo. P. Ignatio, general y fundador [de la] deuota religión de Roma.

CARTA TERCERA

EL P. ANTONIO GOU S. J., A SAN IGNACIO DE LOYOLA

.....

No dexare de dezir a V. P. cómo por cartas de Oñate hemos sabido cómo el día de San Joan evangelista, de noche, se quemó el monasterio de Ntra. Sra. de Arançaçu, que estaua en vn desierto muy grande, en término de Oñate. Estauan en él vn buen conuento de frayles franciscos obseruantes, muy buenos religiosos. Fué tan grande el fuego, que dicen que no quedó piedra sobre piedra en todo, sino la ylgesia y la hospedería. Es una casa de muy gran deuoción y van a ella la gente de aquella tierra, como a Ntra. Sra. de Monserrate, o de Guadalupe: por ser cosa tan señalada, seriuo a V. P.

.....

.....

CARTA CUARTA

DON JUAN DE BORJA A SAN IGNACIO DE LOYOLA.

Muy Rdo. Señor y Padre mío:

26. Como V. S. entenderá por letras de mi padre y del P. provincial, ha sido nuestro Señor servido de permitir se quemase el Convento de Nuestra Señora de Arançaçu, en el cual toda esta tierra tiene tanta devoción. Y para remediar el daño que el fuego ha hecho y para que la casa se pueda reedificar y Nuestro Señor se sirva en ella, como solía, desean estos Padres suplicar a Su Santidad les conceda un jubileo para esta obra; y para esto piden a V. P. por intercesor, dando favor para que esto se conceda.

27. Yo, por mi parte, suplico a V. P. quiera favorecer este negocio, pues es de tanto servicio de Nuestro Señor. Y pues V. P. desea esto tanto, no terné yo por qué encarecerlo más, sino quedar muy confiado de que por parte de V. P. no se nos desará de hacer toda merced. Y guarde Nuestro Señor la muy Rda. persona de V. P. como yo deseo.

De Loyola a, de Enero 1554

De V. P. hijo y servidor,

Don Juan de Borja.

Superscriptio.- Al muy Rdo. P. y Señor mío el P. Maestro Ignacio de Loyola, General de la Compañía de Jhs. en en Roma.

CARTA QUINTA

EL P. ANTONIO DE ARAOZ, S. J., A SAN IGNACIO DE LOYOLA

28. Muy Rdo. Padre mio: La suma graçia y amor eterno de Xpo. [Cristo] nuestro señor sea siempre en nuestro contínuo fabor y ayuda. Por otras, y por las del P. Francisco, entenderá V. P. cómo está el monesterio de nuestra Señora de Arançaçu.

29. La deuoción de aquella casa y el fruto que en confesiones se haze en ella, ya V. P. lo sabe; y por seer la nesçesidad tan grande, y la obra tan pia, y los religiosos personas a quienes in Domino mucho debemos, no se a podido escusar de scriuirlo a V. P. Y pues vasta significarlo, y V. P. entiende la calidad de la obra, Jhu. Xpo. [Jesucristo] nuestro señor nos dé su graçia para sentir y cumplir su voluntad santíssima. Amén. De Valladolid 25 de Junio 1554.

V. P. minirvus filius in Xpo.,

Araoz.

Inscriptio: Jhs Al muy Rvmo. Padre mio en Christo, el P. Me. Ignatio de Loyola, prae pósito general de la Compañía de Jesús, en Roma

CARTA SEXTA

SAN IGNACIO DE LOYOLA A SAN FRANCISCO DE BORJA

La suma gracia y amor eterno de Christo N. S. sea siempre en aiuda y fauor nuestro

31. Resciuí una vuestra de 25 de Junio con algunas otras del Padre ministro provincial de Cantabria, y del consejo de Oñate y Azpeitia, y tambien escriuíá el señor D. Juan, y nuestro hermano el Dr. Arahoz: y la suma de todas las letras hera que yo procurase un juvileo por algunos años en los obispados de Pamplona y Calaurra para que se ayudase la fábrica de Ntra. Señora de Aranzazu.

32. Es verdad que, como el casso de aquella quema fué de grande lástima, especialmente a los que tenemos noticia de la deuozión de aquel lugar y de lo mucho que en él sea seruido Dios N. S., assí los medios que para la restauración del monasterio pudiesen tomarse me paresçe deban con mucha afición procurarse. Y de mí os puedo deçir que tengo particular causa para la dessear; por [que] quando Dios N. S. me hizo merzed para que yo hiçiese alguna mutazion de mi vida, me acuerdo hauer reçiuido algun provecho en mi ánima belando en el cuerpo de aquella iglesia de noche.

33. Pero saued, caríssimo hermano, que de dos meses a esta parte por mis enfermedades, de 24 horas del día, apenas la 4 estoi fuera de la cama, Dios loado; y también esta matheria de juvileos es conzedida con arta dificultad del sumo pontífice que oy es. La via que a mí me parece que sería conveniente para haver este juvileo es que la prinçesa escribiese a S. S. y al protector de

la orden de S. Francisco, que el Cardenal de Carpi, y a mí también si parecerá. Y entonzes con el protector o con S. S., si yo me allare con alguna salud, podré ayudar para que esta cosa aya efecto. Y siendo fácil hauer estas letras allá, a lo que parece, por vuestro medio, o del Dr. Araoz, o quien paresciesse, y sufriendose la dilazió de este tiempo, que será breue, yo sería de parecer que la cosa se guíase por esta vía.

34. Y la suma desto, si os pareziere, o la misma letra se podrá mostrar a los que sobre este negocio me an escrito, a quienes querría responder con las obras antes que con la letra.

Y por no ser esta para más, cesso, encomendándome mucho en vuestras oraciones, y rogando a Dios N. S. a todos quiera dar su gracia cumplida para que su santísima voluntad siempre sintamos y enteramente la cumplamos.

De Roma 20 de Agosto de 1554.

Todo vuestro en el Señor nuestro,

Ignatio

Superscriptio. Ihs. A mi en el Señor nuestro carissimo hermano, el P. Francisco de Borja, de la Compañía de Ihs. Plaçencia o Seuilla.

CARTA SÉPTIMA.

SAN IGNACIO DE LOYOLA A DON JUAN DE BORJA.

La suma gracia de X^o. [Cristo] N. S., sea siempre en ayuda y fabor nuestro.

35. Vna letra del Henero pasado de V. md. rescuí harto tarde con otras, a las quales pensaua conuenía más responder oon la obra que con letras, por ser lo que se encomendaua cosa de mucho seruicio de Dios N. S., y desear yo en su diuina majestad hazer todos seruicios a los que le encomendaban; más, como ya respondí al P. Francisco, este negoçio se effectuará mejor con los medios que le apunté; y V. md. creo habrá uisto la letra que por mi enfermedad deseaba yo siruiese por respuesta de todos los que me escriuieron. hasta que, tuuiendo yo alguna más salud y ubiendo hecho algo de lo que se me encomendaua, respondiase a cada uno en particular.

36. Si aquella letra no habrá uisto V. md. de palabra dirá lo que contenía nuestro hermano Mtro. Andrés de Ouiedo, el qual con otros quatro sacerdotes se ymbían [envían] en seruicio de la sede apostólica a los reinos del Preste Joan, y visitarán a V. md. y su casa, y como letras viuas dirán lo que más V. md. querrá saber.

37. Y así, remittiéndome a ellos, sólo rogaré a Dios N. S. a todos quiera dar su gracia cumplida para que su santísima uoluntad siempre sintamos y enteramente la cumplamos.

De Roma 19 de Septiembre 1554.

Inscriptio: Don Joan de Borja.

IDAIZTIÑO ONETAKO ITZIK ZALLENAK

EUSKERAZ

Aberkide'a = orberaren erri edo aberrikoa.
 Abenderri'a = aben edo gurasoen endako edo odoleko erria ..
 Aberri'a = aben edo gurasoen erria
 Agerkun'a = zerbait agirian ipintzen duena.
 Agertu'a = agertzea
 Agurgarri'a = agur egitekoa
 Aitorkunde'a = aitortzea, *confesiñoa*
 Alatz-a = *milagroa*.
 Alatz-ez = milagro
 Argitaldu = argitara atera.
 Artez ta egiz =
 Auzi'a-.
 Bakalderrri'a = Bakaldunaren-edo *erregearen* erria. . .
 Bakaldun'a = bat-al-dun, bakarrik al duna; erregea . . .
 Bakaldungaiá = bakaldun gaia
 Bakalduri'a = Bakaldunaren edo *erregearen* uria edo erri andia.
 Beakuria.
 Ber-biztu = berriz biziratu edo biztu
 Betikorr'a = Betiko irautzen dana
 Bildu = batu edo pillo baten ipiñi
 Bukatu = azkendu.
 Deun'a edo Done' a *santua*
 Deus =
 Doipuru' a = deituen burua: Aita *Santua*
 Egikizun'a = egiteko gauza
 Egin-bearrá =
 Egipen'a = egitekoa.
 Egipide'a = egin bidea.
 Egoker'a = egoteko era
 Eramankorr'a == eramateko erreza
 Erantzupen'a = erantzudakoa.
 Erki'a = Erri-ki'a, erri (nación) zati bat
 Erri-batzarr'a == erria batu edo bildutzea
 Eskatzalle'a = eskatzen duana.
 Eskerr'a = grazia.
 Eskubide'a = zerbait egiteko ala
 Eskutarte'a =
 Eskutitz'a eskuz egindako itza.
 Etorrera.
 Gaizkakunde'a = Gaitzetik urrutitzea

ERDERAZ

compatriota.
 patria.
 patria.
 prueba.
 visita.
 reverendo.
 confesión.
 milagro.
 por milagro.
 publicar, editar.
 con toda razón.
 asunto, negocio.
 reino.
 monarca, rey.
 príncipe o princesa.
 corte, ciudad regia.
 respeto.
 resucitar.
 eterno.
 coleccionar.
 acabar.
 santo.
 importancia.
 el Santo Padre.
 negocio, asunto.
 deber.
 negocio.
 medio para hacer una cosa.
 situación.
 llevadero.
 respuesta.
 provincia.
 Concejo, ayuntamiento.
 orador (en el sentido de pedir).
 gracia, favor.
 autoridad.
 influencia, autoridad.
 carta.
 venida.
 salvación.

EUSKERAZ

Garagarrill'a = Seigarren ille
 Garbai'a = mintsua.
 Garbaitu = garbai edo mintsu jarri
 Goitiko = zerako
 Goizpargill'a = goizpar egillea
 Gorelsi'a = gora esan.
 Goterki'a = Got-erkia, gogoen erkia (provincia espiritual)
 Goteuna = got-deuna.
 Guda = *gerrea*.
 Gurtuenetako'a = geien gurtu edo *adoratutzen* dana. .
 Idazkai'a = idatziteko gaia
 Idaziño'a = idazti txikia
 Idatzi = atzi erazo.
 Idazlari'a = idazketan dabillena
 Idazkari'a = idazketan ibiltzen dana
 Igaro = *pasatu*.
 Ilbeltza = lenengo illa.
 Irabaskiñ'a = irabasten dana
 Irailla = Bederatzigarren illa
 Irakasle'a = Zerbait erakusi edo irakasten duana
 Irakaspen'a = irakasteko gauzak
 Irarkaldi'a = Batera egindako idaziñoen pilloa.
 Irakasle'a = zerbait irakasten duana
 Irasle'a = zerbait irasten duana, *fundadora*
 Itxaropen'a =
 Itzali = amatau
 Izlari'a = Itz-lari
 Jantzakordun'a = jantzi-gorri-duna
 Jaritzi = zerbait artzera eldu
 Jauntzale'a = Jaun-zale.
 Jaupari'a = jaupa edo *mesa* ematen duana
 Jauskintasun'a = Jaurrari eskindua izatea.
 Jauskiñ'a = Jaunari eskiñia edo eskindua.
 Lagundi'a = lagun pillea, lagunbatza.
 Lekaidaba = Lekaideen aba edo aita.
 Lekaide'a = lekaro-aide'a, bakartasuneko bizilaria.
 Lekaidetxe'a = Lekaide edo *fralleen* etxea
 Lekaidi'a = lekaideen batzarra edo *ordena*
 Luzapen'a = zeregin bat luzetzea.
 Nekazka = neka azkatzea; oben edo *pekafuak'gatik* zor ditugun
 nekeakazkatzea.
 Oargarri'a = oar-garria.
 Oarr'a = oartu edo gogoratzekoa.

ERDERAZ

Junio.
 dolorido, arrepentido.
 estar dolorido, arrepentido.
 celeste.
 evangelista.
 bendecido, loado.
 diócesis, obispado.
 Espíritu Santo.
 guerra.
 de lo más venerado.
 artículo.
 Opúsculo.
 escribir.
 secretario, escritor.
 secretario.
 pasar.
 mes.
 méritos.
 setiembre.
 maestro, doctor.
 enseñanza, lección.
 edición.
 maestro, doctor.
 fundador.
 esperanza.
 apagar.
 orador.
 cardenal.
 alcanzar, obtener.
 devoto.
 sacerdote.
 lo sagrado de
 devoto.
 compañía.
 superior religioso.
 fraile, monje, religioso.
 convento.
 orden religiosa.
 dilación.
 indulgencia, jubileo.
 notable.
 advertencia, nota.

EUZKERAZ

Oben'a = Jaungoikoaren kaltez egindako gaiztakeria. . . .
Ondoren'a = ondoren datorrena.
Onegiña = ondo egiña.
Onura = Onerakoa.
Oparia = Jaun bati egiten zaion ospe edo *onra*.
Ordaindu = ordezkoa eman
Ordezko'a = *Bikarina*.
Ospetsu'a = ospe edo izen andikoa
Otoitz'a = erregua.
Otoizka = otoitz egiñaz
Otoiztu = otoitz egin otoi egin
Otseindu = beste baten otsein edo morroia izan
Otsein'a = morroia.
Ozte asko =
Sarkalde = [eguzkia] sartutzen dan aldea
Sorkalde = [eguzkia] sortutzen dan aldea
Txadon'a = etxe donea edo etxe *santua*.
Ulertu = *Rontuan jausi*
Utsarte = uts-arte.
Zaindari = zaintzen edo zaitutzen babillena.
Zenbaki'a = gauzak zeinbat diran, esatekoa.
Zortziurrena = zortzi urrengo.

ERDERAZ

pecado.
éxito.
beneficio.
provecho.
obsequio, servicio.
pagar.
vicario, lugarteniente.
honroso, glorioso.
ruego.
rogando.
rogar.
servir.
criado, servidor.
gentío, mucha gente.
occidente.
oriente.
templo.
comprender, entender.
hueco.
patrono, protector.
número.
octavario.